



**LANGABEZIAREN EREDU BERRIA.** Nagusiek eta sindikatuek 1958. urteko abenduaren 31n hitzartu zuten Frantziako langabezi sistemaren ordainketa eta antolaketa sistema errotik aldatuko da gaurtik aitzina, PARE kontratua ezarriz bat.

# 43 urteren ondoren, langabezi sistema berria Ipar Euskal Herrian eta Frantzian

PARE deitu plangintza berriaren ezartzeak aldeko eta kontrako erreakzioak sortu ditu Euskal Herrian

Hur Gorostiaga | BAIONA

PARE, *Plan d'Aide au Retour à l'Emploi*, (enplegura itzultzeko laguntza plangintza) legez gaurtik aitzina izanen da aplikagarri.

Plangintza berriak kalapita ugari sortu du azken urtean Frantziako ordezkari sozialen artean. Negoziazioak iazko martxoaren 17an abiatu ziren, eta ekainaren 14an bururatu, CFDT eta CFTC sindikatuen akordioarekin. FO eta CGTk negoziazio mahaia utzi zuten orduko hartan, hitzarmena gogorki salatuz.

Iazko uztaileko izan behar zen aplikagarri, baina Lionel Jospinen gobernuak ez zuen onartu bi sindikatuen eta nagusigoaren akordioak. Azkenean, aldaketa batzuk eginik eta CGT eta FOK, nagusiek eta sindikatuek kudeatzen dituzten UNEDIC langabezi kutxetako bitariko batzordeetarik kanpo gelditzeko arriskua ekiditeko plangintzaren ondorioak onarturik, bihar hasiko da martxan.

Egun langabezi laguntzak jasotzen dituzten langabeek PARE onartu ala ez hautua izanen dute. Ez badute onartzen, langabeziako diru laguntzak degresiboak izanen dituzte denboran, orain arte bezala. Onartzen badute, aldiz, laguntza iraunkorrek izanen dituzte eskubidea duten denboran, baina PAREren barneko PAP *Projet d'Aide Personnalisé* (personalizatutako laguntza proiektua) kontratuaren betebeharreri erantzun beharko diete.

Trantsizio etapa bat besterik ez da izanen, langabe berri guztiendako derrigorrezkoa izanen baita PARE eta PAP sinatzea diru laguntzak ukateko.

## Diru laguntza hein berean

Berrikuntza nagusia dugu PAREekin langabetuen diru laguntzak ez direla orain arte bezala degresiboak izanen. Aitzitik, orain arte langabeak laguntzak ukateko sei hilabete behin ANPERa (Hegoaldeko INEMen pareko) joan eta lana atzemateko egindako ahalegi-



Hemendik aurrera, Iparralde eta Frantziako langabe berriek PARE kontratu berria sinatu beharko dute.

## SISTEMA BERRIA

**Baldintzak finkatu eta gero, langabeak ezingo die uko egin ANPEk eskaini lanpostuei**

nak zenbait agiriz frogatzea aski zuen.

PAREekin, ANPEko zerbitzuek «segimendu pertsonalizatua» egiteko xedea dute, «langabeak lana atzemateko egiazko aukerak» ukan ditzan. Gisa horretan, langabearen arabera lanpostuaren irizpideak finkatu ondoren, ANPEk proposatuko dizkion lanpostuak ezin izango ditu ukatu, diru laguntzak galtzeko arriskupean.

PAREren aldekoek, bereziki CFDT sindikatuak plangintza berriaren bitartez, langabeek egokiak zaizkien lanpostuak eskaintzeko aukera ikusten dute. Ezker muturreko alderdiek eta langabeen mugimenduek, aldiz, beharkizunaren pean ANPEk edozein lanpostu edozein baldintzatan inposatzeko arriskua dakusate.

## ANPERen ahalak ikusteko

Gaur egun ANPERen bulegoetan ikusten diren ilarak kontuan izanik —langabe batek goiz osoa pasa dezake itxoiten ezertariko ez—, PAREk martxan ezarri behar lukeen plangintza bereziaren eraginkortasuna ikusteko dago.

Frantzia osoan 4.000 pertsona gehiago hartu ditu ANPEk. Lehen langabeekin sei hilabete behin egiten ziren azaleko bilkurak, bi edo lau aste behingo sakoneko bilkura eraginkorrek bilaka daitezzen. Hain zuzen, hori da plan berriaren apustua, eta zailtasun nagusia.

Haatik, gaur egun langabezi laguntzak dituztenak langabeen %40 besterik ez dira, eta horiendako ez da berritasunik ageri. Gauza bera 25 urte baino gazteagoentzat, haiek ez baitute ez eta gutieneko laguntza soziala (RMI) jasotzen ere.

## ALDAKETAK

### Eskubide eta betebeharrak berriak langabeendako

Egun arte langabezi laguntza duten langabeek hautua ukanen dute, baina langabe berriak derrigorrez PARE kontratupean izanen dira, laguntzak ukan nahi badituzte. PAREk eskubide eta betebeharrak sortuko ditu:

**BETEBEHARRA.** Langabeak 3 orriko kontratua egin behar du ANPERen izena eman, diru laguntzak ukan eta PARE kontratua egiteko.

**PAP KONTRATUA.** Sinatu eta hilabetera, ANPEko ordezkari batekin bilduko da, eta PAP kontratu bat egingen dute «elkarrekin». Kontratu horretan, langilearen kalifikazioa agertuko da, eta gaitasunaren arabera lanpostuen kategoria zehaztuko da, baita beharrezkotzat jotzen diren ikastaro eta ikasketen zerrenda ere.

**LAU HILABETEKO LANA 18TIK.** Langabezi laguntzak ukateko, orain arte, azken 8 hilabeteetan lau hilabetez lan egin izana hartzen zen kon-

tuan. Egun, azken 18 hilabeteak hartuko dira kontuan. Aski kotizatzen ez duenak ez du laguntzarik izanen, orain arte bezala.

**%2 GEHIAGO.** Diru laguntzak %2 igoko dira.

**IRAUNKORRA ETA MUGATUA.** Orain arte diru laguntza degresiboa izaten zen. Egun, iraunkorra izanen da, beharpenik gabe, baina epe berean.

**SEI HILABETE.** ANPEko zerbitzuak bi edo lau astetik behin bilduko dira langabeekin. Hark definitu diren irizpideen arabera lanpostu eskaintzei erantzun eta bere aldetik bilaketa «pertsonal, aktibo eta serioak» egin beharko ditu. Sei hilabeteko epean lanik atzeman ez badu, beste PAP bat egingen da, irizpide berriekin.

**LAGUNTZAK.** Kanpoko enplegu eremu bateko lanpostua onartzen badu, langabeak bidaia gastuak ordaintzeko laguntzak ukan ditzake.

**ZIGORRAK.** Definitutako irizpideen arabera lanpostuei uko egiten badie, langabeak langabezi laguntzako %20 gal dezake gutienez, eta laguntza guztiak gehienez.